

` ` norbaiten eta zerbaiten artean ` `

June Crespo

2022ko maiatzaren 27a - uztailaren 29a

CarrerasMugica

CarrerasMugicak atsegin handiz aurkeztu nahi du June Cresporen *entre alguien y algo / norbaiten eta zerbaiten artean* barkako erakusketa, maiatzaren 27tik uztailaren 29ra, 2015ean eta 2017an egindakoen ondoren galerian izango den hirugarrena.

Orain dela hilabete batzuk, Marc-ek bere etxetik gertu, Berlinen, dagoen tailer bati buruz hitz egin zidan, han zaldi gainean ibiltzeko aulkiak egiten baitituzte. Hitz egin zidan barne-egituraz eta horiek osatzen dituzten geruzez. Orduan gogoratu nuen wallapop-eko nire gogokoenen artean tankera horretako aulki batzuk nituela hautatuta. Erakargarria zait objektu honen formaren xedea izatea bi gorputzen arteko bitartekotza-lana. Nola egokitzen diren gorputz batera eta bestera.

Askotan, lanean hasten naiz objektu batekin dudak obsesiotik abiatuta eta haren formak behatuz. Zertaz hitz egiten didaten edo nola begiratzen didaten jakiteak modua ematen dit haiei lotuta jarraitzeko. Era berean, erakusketa honetarako lanean egon naizen bitartean, irudi batzuk izan ditut lagun: mingainaren eta ahosabaiaren arteko kontaktu intimoko harremana, edo betazalaren eta begi-globoaren artekoa; azal finen eta ertzen arteko kontaktua, hala nola lore baten petaloen artekoa. Bestetik, identifikatu dut pieza desberdinek zerbait dutela batera, hain zuzen, pultsu eta bultzada moduko zerbait. Aurrerantz doan zaldia bezalakoa.

Deleuze-ren pinturari buruzko liburu bat berrirakurtzen ari nintzela, esaldi hau aurkitu nuen: «Formei bultzak egitea harik eta ilustrazioarekin batera zerikusirik ez izan arte». Formei bultzak egitea desitsasi arte... Urrundu arte...

Ahalegina egiten dut forma egokiei lagun egiten harik eta beste zerbait izan arte. Gauza bat eta asko izan arte. Barrutik bultzatutako forma, aldakuntza txiki batzuekin, azkenean beste forma batera amiltzen dena. Gustatzen zait pentsatzea pieza guztiak bat eta bera direla bilakaeran. Berriz saiatu eta errepikatzen dut, ñabardurak nabaritzeko, erritmo bat sortzeko edo ihes egiten didan zerbait inguratzeko.

Entseatzeko eta trebatzeko leku gisa hartu dut erakusketa hau. Hurbiltzen hasteko lan egiteko desira batera, hormari dagokionez, azalera plastiko gisa, tentsioan eta distentsioan dauden ehunen bidez, nabarmentzen eta partzialki lausotuta geratzen diren objektuen gainean. Elementu zurrun eta malguen, opako eta zeharrargien arteko harremana aztertzeaz gain, jolas bat eszenaratu nahi izan dut erakutsi eta ezkutatzearen, jantzi eta erantzearen, agertzearen eta desagertzearen artean.

June Crespo (Iruñea, 1982) Bilbon bizi da, eta bertan lan egiten du. Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean 2005ean, eta De Ateliers (Amsterdam) egonaldi-programan parte hartu zuen 2015. eta 2017. urteen artean. Bakarka egin dituen erakusketen artean, honako hauek nabarmentzen dira: Am I an Object (2021) PA///KT (Amsterdam); Helmets (2020), Artium, Vitoria-Gasteiz; No Osso (2019), Uma Certa Falta de Coerência, Porto; Ser dos (2017); eta Cosa y Tú (2015), CarrerasMugica galeria, Bilbo. Arestian, talde-erakusketetan parte hartu du; hona hemen horietako zenbait: The Milk of Dreams, Veneziako Bienala 2022; Fata Morgana, Jeu de Paume (Paris), eta El sentido de la Escultura, Fundación Miró (Bartzelona).

Erraboil basatiak itzalpean
eguzkiak belar oro erakusten
Inkontziente presatsua ametsean
JAUZI MATERIALA

Desiraren aukera auzi materiala da.
Lortu beharreko pregnantziak zehaztuko du jauziaren izaera.

Juneren eskulturan, halako ausardia edo adorea dago jauzi hori egiteko
—existitzen ez denetik gorputzera—, denok harritzen gaituena.

Seguruenik bera ere harrituko da, prozesu bakoitzean indar horrek
bultzatuta, zeinak modu berrituan eramaten baitu bere muinerantz.
Ornoekiko eta haien mihiztadurarekiko maitasuna, eta, aldi berean,
erabateko errespetua horiek bultzatzen dituen korronte energe-
tikoarekiko.

Horrek ekartzen ditu erabakiak eta gidatzen du artista prozesu eskul-
torikoaren arreta eta laguntza sakonean. Munduan oihartzuna izatea,
beste batzuentzat imajinaezina den moduan jauzi eginez, norberaren
gorputzaren eta objektuaren arteko intimitate eta hurbiltasunetik in-
dustria-prozesuen espazio komunera.

Beti prest proiektatutako emaitzei buelta emateko. Akatsean ere
aurkituz eraikitzen duen gehiegizko materiala.

Eta materialarekin (brontze, hormigoi, oihalarekin) lotutako teknika
bakoitza egiteko prozesuan jarritako arreta horrek ematen du aukera
gorputz-eskulturaren zirrikituetan imantzen gaituen irudi berri bat
azalera dadin. Eta han, hurbil-hurbil, ez-aurpegia den irudi honek,
haragi-irudi edo lur-irudi honek, hezur-irudi edo azal-irudi honek,
ezabatu eta egiaztatzen du, eskubide osoz, beste lehen irudi hori, urru-
titik begian eta espazioan dagoena, ibilbideak iradokiz eta kadentziak
antolatuz.

Lauoinka brontzezko behorra
estali haren giharrak, zeta

Blai egindako paisaiak du nahasten
soslai haren trostarekin

Zurtoin hutsa
Koroa irekia

Ura edan
argia irentsi
igerian du giroa gurutzatzen

Elena Aitzkoa



Ikuspegi orokorra

Ikuspegi orokorra





Ikuspegi orokorra

Ikuspegi orokorra





velos (párpados) 2022. Erretxina akrilikoa, beira-zuntza, ehungintza. 192 x 48 x 85 cm.



velos (párpados) 2022
Erretxina akrilikoa, beira-zuntza, ehungintza
192 x 48 x 85 cm.

velos (párpados) 2022
Erretxina akrilikoa, beira-zuntza, ehungintza
192 x 48 x 85 cm.





dividual, 2022 (xehetasuna)
Poliesterrezko erretxina, beira-zuntza eta plastikoa. 5 elementu
3 metroko altuera. Instalazioaren neurri aldakorra



Ikuspegi orokorra



dividual, 2022 (xehetasuna)
Poliesterrezko erretxina, beira-zuntza eta plastikoa. 5 elementu
3 metroko altuera. Instalazioaren neurri aldakorra



dividual, 2022 (xehetasuna)
Poliesterrezko erretxina, beira-zuntza eta plastikoa. 5 elementu
3 metroko altuera. Instalazioaren neurri aldakorra





dividual, 2022 (xehetasuna)
Poliesterrezko erretxina, beira-zuntza eta plastikoa. 5 elementu
3 metroko altuera. Instalazioaren neurri aldakorra



dividual, 2022 (xehetasuna)
Poliesterrezko erretxina, beira-zuntza eta plastikoa. 5 elementu
3 metroko altuera. Instalazioaren neurri aldakorra




cocktail 2022
Brontzea, altzairua, zeramikazko estaldura, ehungintza
326 x 100 x 70 cm.

cocktail 2022
Brontzea, altzairua, zeramikazko estaldura, ehungintza
326 x 100 x 70 cm.





velos (verano) 2022
Brontzea, altzairua, zeramikazko estaldura, ehungintza
280 x 177 x 80 cm.



velos (verano) 2022
Brontzea, altzairua, zeramikazko estaldura, ehungintza
280 x 177 x 80 cm.




Ikuspegi orokorra

pulso 2022
Brontzea, metakrilatoa, lore lehorra, gabardina
155 x 66 x 76 cm.





pulso 2022 (xehetasuna)
Brontzea, metakrilatoa, lore lehorra, gabardina
155 x 66 x 76 cm.




óptico 2022. Altzairua, zeramikazko estaldura. 75 x 30 x 87 cm.



óptico 2022
Altzairua, zeramikazko estaldura
75 x 30 x 87 cm.

Ikuspegi orokorra





velos (primitiva) 2022
Brontzea, altzairua, zeramikazko estaldura, ehungintza
203 x 104 x 70 cm.



velos (invierno) 2022
Brontzea, altzairua, zeramikazko estaldura, ehungintza
243 x 106 x 70 cm.







am I am object 2022. Poliester-erretxina, beira-zuntza, lo-zakuak. 195 x 126 x 30 cm.



am I am object 2022
Poliester-erretxina, beira-zuntza, lo-zakuak
195 x 126 x 30 cm.



Ikuspegi orokorra



bostezo 2022. Argizaria, poliester-erretxina, karbono-zuntza, beira-zuntza, ehungintza, zintxa. 55 x 82 x 47 cm.



pulso 2022. Brontzea, zeramikazko estaldura, ehungintza, lore lehorra. 166 x 15 x 48 cm.



pulso 2022
Brontzea, zeramikazko estaldura, ehungintza, lore lehorra
166 x 15 x 48 cm.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725